

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

3018

18/2010 FORU DEKRETUA, Diputatuen Kontseiluak apirilaren 27an emana, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia aldatzen duena.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauaren 9. artikulua zergak ordaintzetik salbuetsita dauden errentak jasotzen ditu, eta horren barruan daude, besteak beste, lurralde administrazio publikoetatik jasotako dirulaguntza publikoak, arauz finkatzen direnak hain zuzen.

Gai hori garatzeko, abenduaren 11ko 76/2007 Foru Dekretuz onartu zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia eta bere 12. artikuluan arautzen du lurralde administrazio publikoek emandako dirulaguntza publikoek salbuespena.

Industria sektoreak eta, batez ere, automobilarena, ez daude egoera egonean; hartara, administrazio publikoek erantzun egin dute, eta dirulaguntzak eman, etxetresna elektrikoak, altzariak eta kondentsazio galdarak erosi eta leihoak berritzeko.

Foru dekretu honen xede da Pertsona Fisikoen Errentari buruzko Zerga ordaindu behar izatetik salbuetsita dauden laguntzen barruan sartzea dirulaguntza horiek, zerga horren arautegia onartzen duen abenduaren 11ko 76/2007 Foru Dekretuaren 12. artikulua aldatuta.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak gai honi buruz egindako txostena aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatu eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT

Artikulu bakarra. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari Araudia aldatzea.

Pertsona Fisikoen gaineko Zergaren Araudia onartzen duen abenduaren 11ko 76/2007 Foru Dekretuaren 12. artikuluko 1. atalari u), v) eta x) letrak eransten zaizkio, honako edukia dutenak:

“1. Zergaren foru arauaren 9.28 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, zergak ordaintzetik salbuetsita egongo dira ondoren aipatzen diren araudi eta laguntza programa edo planen, edo horien ordezkien, babesean lurralde administrazio publikoek eman dituzten dirulaguntza publikoak:”

“u) Ibilgailuen parkea berritzearen aldeko 2000 E eta MOTO E Plana, Euskadi 2000 Plana, eta xede berarekin gainerako autonomia erkidegoek ezarritako planak edo horien ordezkiz jartzen direnak, helburu bera oinarri.

v) + Euskadi 09' Plana, bertan sartutako Renove planei dago-kienez, edo xede berarekin horien ordezkiz jartzen direnak.

x) Lurraldeetako administrazio publikoek aurkeztutako beste laguntza publiko batzuk, ondasun edo instalazioak berritzen laguntzea xede izan eta u) eta v) puntuen helburu bera dutenak.”

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2009ko urtarrilaren 1etik sortuko ditu ondorioak.

Bigarrena. Gaitzea.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau aplikatzeko eta aurrera eramateko behar diren xedapenak emateko.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko apirilaren 27a.– Diputatu nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Ogasun zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

3018

DECRETO FORAL 18/2010, del Consejo de Diputados de 27 de abril, que modifica el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

La Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, dedica su artículo 9 a la enumeración de las rentas exentas de tributación, incluyendo dentro de las mismas las ayudas públicas prestadas por las Administraciones Públicas Territoriales, que se determinen reglamentariamente.

En desarrollo de la citada materia, el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado mediante Decreto Foral 76/2007, de 11 de diciembre, regula en su artículo 12 la exención de ayudas públicas prestadas por las Administraciones Públicas Territoriales.

El entorno desfavorable para los sectores industriales, y en particular para el sector del automóvil, ha tenido respuesta por parte de las distintas Administraciones Públicas en forma de subvenciones a la adquisición de vehículos, electrodomésticos, mobiliario, calderas a condensación y renovación de ventanas.

El presente Decreto Foral tiene por objeto incluir las mencionadas subvenciones en la relación de ayudas exentas de tributación en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, mediante la modificación del artículo 12 del Decreto Foral 76/2007, de 11 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento del citado Impuesto.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO

Artículo Único. Modificación del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas

Se modifica el párrafo primero y se añaden tres nuevas letras u), v) y x) al número 1 del artículo 12 del Decreto Foral 76/2007, de 11 de diciembre, que aprueba el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, con el siguiente contenido:

“1. A efectos de lo previsto en el artículo 9.28º de la Norma Foral del Impuesto, estarán exentas las ayudas públicas prestadas por las Administraciones Públicas territoriales al amparo de las normativas y de los programas o planes de ayudas que se relacionan a continuación o de aquéllos que las sustituyan:”

“u) Plan 2000 E y MOTO E de apoyo a la renovación del parque de vehículos, Plan 2000 Euskadi y los que con idéntico fin se establezcan por el resto de Comunidades Autónomas o les sustituyan con el mismo objeto.

v) Plan + Euskadi 09' respecto de Planes Renove incluidos en el mismo y los que les sustituyan con el mismo objeto.

x) Otras ayudas públicas prestadas por las Administraciones Públicas Territoriales cuyo objeto sea la ayuda a la renovación de bienes o instalaciones y respondan a idéntica finalidad que las señaladas en las letras u) y v) anteriores.”

DISPOSICIONES FINALES

Primera. Entrada en vigor.

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOTHA, con efectos a partir del 1 de enero de 2009.

Segunda. Habilitación.

Se autoriza al Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto Foral.

Vitoria-Gasteiz, 27 de abril de 2010.– Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.